

Funtsezko jarduera:

Gure proiektua ondo funtziona dezan, gauza garrantzitsu asko egin behar ditugu eta gauza horiek ezin ditugu beste enpresen esku utzi, hau da, guk egin beharko ditugu gure gustora.

Lehenik eta behin, ekoizpenarekin zerikusia duten gauzen artean, produktua diseinatzea oso garrantzitsua izango da, izan ere, aplikazioaren diseinu bat egin behar dugu eta hori gure gustora egin behar dugu. Gainera, aplikazioa guk ekoiztu beharko dugu eta “play store” bidez edo “apple store bidez” ondo entregatzen dela egiaztatu.

Horrez gain, enpresaren barruan edo bezeroekin arazoak baldin badaude, guk geuk konpondu beharko ditugu, bezeroarekin hitz egiten eta beraiekin akordio batera iristen. Horrez gain, erreklamazio orriak ere beraien esku egongo dira aplikazioaren barruan, hau da, sekzio bat egongo da non norbaitek erreklamazioen bat baldin badu hor jarri dezake. Beraz, norbaitek erreklamazio orrian zerbait idazten badu, guk arazoak zeintzuk diren jakingo dugu eta horiek konpontzen saiatuko gara.

Azkenik, plataformako eta sareko jarduerak guk kontrolatu beharko ditugu. Aplikazioa guk editatu, kontrolatu eta kudeatu beharko dugu egunero. Horrez gain, aplikazioa mantendu egin beharko dugu, hau da, serbidoreak ez erortzea kontrolatu eta aplikazioa denbora guztian ondo funtzionatzen duela egiaztatu.